

KALEJIRA

6. FUNTSEZKO JARDUERAK

Gure enpresan ez dira egongo ekoizpenarekin erlazionatutako jarduerak, ez ditugulako produktuak zerotik sortuko. Merchandising-a saltzeko produktuak erosiko ditugu soilik, eta gero sare sozialen bitartez edo fisikoki salduko ditugu, beraz ez dugu garraiorik beharko.

Hala ere, gure helburua ez da nagusiki produktuak saltzea izango, zerbitzu bat ematea baizik. Bertan, jarduera fisikoak eta beste jarduera ezberdinak egingo dira, monitore batzuen menpe egongo direnak; beraz, gure enpresaren funtsezko jarduera monitoreak ordaintzea eta antolatzea izango da.

Bestetik, webgunea sortu behar dugu, eta hori da internetarekin erlazionatuta dagoen funtsezko jarduera bakarra. Webguneak aukera emango digu gure zerbitzuak modu eraginkorrean zabaltzeko eta bezeroei erraztasunak emateko, hala nola, ordainketa online, ordutegiak eta bestelako informazio garrantzitsua eskaintzeko. Horretarako, plataformaren mantenimendua eta eguneratzea funtsezkoak izango dira. Horrekin batera, sare sozialetan aktibitateak bultzatu eta gure marka ezagutaraziko dugu, horrela salmentak eta zerbitzuen eskaintza modu digitalean indartuz. Webgunearen kudeaketa informatikari baten menpe utziko dugu, eta sare sozialen ardura guk hartuko dugu.

Azkenik, gure jarduerak dibertsifikatzea ere gure helburuetako bat da, hau da, eskaintza zabaltzea. Ez dira soilik jarduera fisikoak egingo, online plataforma batean ere egin ahalko dira, bezeroek etxetik ere parte har dezaten.

